

Hizkuntza eta komunikazioa

1. David Crystal, *A little book of language*. London: Yale University Press, 2010, 260 or.

Autoreak ez du aurkezpenik behar. Ez dira asko izango hizkuntzaz (eta hizkuntzez) David Crystalek adina dakitenak edo, gutxienez, berak adina idatzi dutenak. Esan beharrik ez dago hizkuntzaz ari dela hemen aurkezten dugun liburua ere. Liburua txikia omen da, hala dio autoreak izenburuan eta hala errepikatzen du azken orrialdean ere; gaia, ordea, hizkuntza, handia omen da, garrantzi handikoa. Gehiago oraindik, Crystalen ustez, handiagorik ez omen dago. Gaienean Everest Mendia dela eranstean du eta seguru asko horregatik gertatzen zaiola hain liluragarria. Beno, bada, lilura hori pizten du irakurlearengan ere. *A little book of language* ez dago akademia estiloan idatzia, gazteei baitzaie zuzentzen autorea, eta ez hizkuntzalariei: 'linguistika' hitza, adibidez, liburuaren azken aldera arte ez da ezertarako aipatzen. Dena dela, edozein irakurlek, duen adina duela ere, atseginez irakurriko du liburua; izan ere, gauzak modu labur, argi eta atsegingarrian esaten dira. Hasieratik hasita, hau da, haur-mintzaira edo haurtxoari helduek hitz egiten dioten hizkera adierazkor eta sinplifikatutik, Crystal 40 kapitulutan aletuz doa interes handiko gaiak, hala nola: hizketan ikastea, irakurtzen eta idazten ikastea, elebitasuna, munduko hizkuntzak, hizketaren jatorria eta idazketarena, galtzen ari diren hizkuntzak, argota. Hamalagarren kapituluan munduko hizkuntzak familiatan sailka daitezkeela esan ondoren, hurrengoaren hasieran ohartarazten gaitu badirela munduan hizkuntza isolatuak esaten zaienak ere, hau da, inolako familian sartu ezin dire-

nak. Horrelako hizkuntza bat, Europan, euskara dela eranstean du eta hiru paragrafo eskaintzen dizkio gure hizkuntzari. Hizkuntza, bestalde, jostatzeko erabil daiteke, edo poesia egiteko, edota jendea gogatu eta pertsuaditzeko; hori dela eta, gogorarazten digu Crystalek, hizkuntza kontuetan interesa jartzeko arrazoi nagusietako bat honako hau da: «jakinarenean egotea nola sarritan jendea saiatzeko den gure pentsamenduak eta sentimenduak manipulatzeko hitz egiteko eta idazteko moduen bidez» (211 or.). Hona adibide bat autoreak berak eskaintzen duena: egunkari batean «terrorists move south» (terroristak hegoalderantz doaz) irakurtzen badugu eta beste egunkari batean, jende beraz ari direla, «freedom fighters move south» (askatzaileak hegoalderantz doaz), ez dugu duda handirik izango zein aldetakoa den egunkari horietako bakoitza. Bukatzeko, hona hemen, laburturik, autoreak azkeneko kapituluan egiten duen garrantzi handiko ideal edo kausa batzuen zerrenda: 1) galtzeko arriskuan dauden hizkuntzak babestea eta begiratzea; 2) hizkuntza gutxituak aintzat hartzea; 3) atsegin izatea norberaren hizkuntzaz gainera beste batzuen hasi-masiak bederen ikastea; 4) norberaren ama-hizkuntzako aldaerak (dialektoak eta doinuak) gehiago estimatzea; 5) hizkuntzaren barneko estilo ugariak, formaletik argoterainokoak, ezagutzen saiatzea, eta 6) hitz egiten edo idazten ikasteko zailtasunak dituztenei laguntzen ahalegintzea.

Pello Huizi

2. Andrea Mayr (arg.), *Language and power. An introduction to institutional discourse*. London: Continuum, 2008, 204 or.

Hizkuntza (edo diskurtsoa), boterea, erakundea: horra liburuaren gako-hitzak. Unibertsitatea, espetxea, komunikabideak eta armada dira autoreek beren ikerketarako aukeratu dituzten erakundeak. Liburuaren osatzen duten lanetan erakutsi nahi digute nolako eragina duen hizkuntzak erakundeen sortze eta eratzean eta nolako indarra eta boterea duten erakundeek diskurtsoak sortu eta ezartzeko. Zortzi kapitulu ditu liburuak. Lehenbizikoan, aipatu diren kontzeptuei buruzko argitasunak eskaintzen dira. Erakundeek ari direnean, adibidez, estatuko organo publikoek ari dira, baina baita boterearekin ezin askatuzko lotura duten eta talde ahaltsu batzuen interesen zerbitzura daudenez ere; azken hauen adibidea komunikabideak dira. Hizkuntzari dagokionez, ikuspegi funtzionalista hartzen dute autoreek, hau da, hizkuntza helburu eta funtzio batzuetarako erabiltzen den aldeetik aztertzen dute. Botereaz denaz bezainbatean, non dagoen baino gehiago, boterearen estrategia eta tekniketan jarri dute autoreek arreta, eta hor hizkuntzak du rol nagusia. Bigarren kapituluaren unibertsitateak gero eta gehiago hartzen ari diren norabidea eztabaidatzen da, autoreak kudeaketa-eredua deitzen duena eta unibertsitateak negoziotzat hartzen dituen, elkarren lehian dabiltzanak zeinek ikasle gehiago izango; horren ondorioz, merkatuko erretorika tinko sartua dago buruzagi akademikoaren diskurtsoan. Hirugarren kapituluaren presondegiez ari da eta bertan azaltzen da nola leku horiek eta horko birgaitze edo errehabilitazioari buruzko diskurtsoak baliatzen diren gizartearen ongi hedatuak dauden ideologiak legitimatzeko, non krimenaren

errua gizabanakoari egozten zaion eta ez faktore estrukturaleri. Laugarren kapituluak eta bosgarrenak, biek, komunikabideak dituzte aztergai. Laugarrenak arreta komunikabideen diskurtsoan jartzen du eta agerian uzten du nola komunikabide-erakundeen helburua den munduaren ikuskera jakin batzuk sortzea, bat datozenak eragile eta ideologia-egitura mota jakin batzuekin. Bosgarrenaren asmoa da erakustea nola komunikabideek praktika sozialak jartzen dituzten testuinguru berri batean; arraza-gatazka, adibidez, ez litzateke etorriko langabeziatik eta pobretasunetik, baizik egiten den aukeratik eta komunikazioak porrot egitetik. Hurrengo bi kapituluek militarrekin dute zerikusia. Seigarrenean, gerran hildakoen oroitzapenetan Britainia Handian egiten diren ospakizunetako diskurtsoak eta haien omenez eraikitako monumentuak hartzen dira kontuan. Diskurtsoei dagokionez, gerra denborako diskurtso motari eusten zaio: orduan agintariek eta talde boteredunek egiten zuten bezala, oraindik ere gerran hildakoek Jainkoari eta beren herriari egin omen zioten beren buruaren eskaintza azpimarratzen da. Zazpigarren kapituluak Ipar Amerikara garamatza eta hango militarren defentsari buruzko hitzaldien analisisa egiten da hor, beste hainbat gauzaren artean arreta erakarriz honako honetara: nola erabiltzen den hitzaldietan metafora ideologia eta politika arazo konkretoak ezkutatzeko. Azkenik, zortzigarren kapituluaren hainbat aholku ematen dira erakundearen diskurtsoak analizatzeko proiektuak diseinatzen laguntzeko.

Pello Huizi

3. Edda Weigand (arg.), *Dialogue and rhetoric*. Amsterdam: John Benjamins, 2008, xiv + 316 or.

Azken urte hauetan diziplina frankok ekin diote erretorika ikertzeari; aipagarrienak hizkuntzalaritza, filosofia, komunikazio zientziak eta psikologia dira. IADA edo International Association for Dialogue Analysis delakoak 2007ko martxoan Münsterreko Unibertsitatean egin zuen kongresuaren gaia ere erretorika izan zen; hona batzarraren izenburua: «Dialogue analysis and rhetoric». Kongresu horretako txosten hautatu batzuek osatzen dute liburu hau. Lanak aukeratzeko orduan, bi gauza hartu dira kontuan. Batetik, erakutsi nahi izan da erretorikan gaur egun ez dagoela ikuspuntu bateraturik, alegia ahots eta eredu desberdinak daudela. Horregatik, liburuaren lehen atalean «paradigma erretoriko» sail bat aurkituko du irakurleak; honako hauek, adibidez: askotariko jokoaren paradigma, metadiskurtoaren paradigma, diskurtoaren paradigma, praktikaren paradigma, pragma-dialektikaren paradigma. Bestetik, zera ere azpimarratu nahi izan da: ahots eta ikuspegi desberdin horiek oztopotzat hartu ordez, dialogo-

jokoan elkarri eragiten dioten osagaitzat hartzeko joera dagoela. Liburuaren argitaratzaileak «askotariko jokia» deitzen duena da ikuspegi horren oinarri teorikoa. Liburuaren bigarren partean bildu diren txostenek helburu hau dute: frogatzea nola dialogoko interakzioan elkarri eragiten dioten hainbat osagaik. Hona gaietako batzuk: ironia, ikusizko irudien eta hitzen arteko elkarreragina, nolakoa den eta nola garatzen den erakundeetan harreman-jokoen erretorika. Azken honi dagokionez, hona ikertzen diren gaien zerrenda: negozioren munduko jokoak, parlamentuko eztabaidak, komunikabideen rola eutanasiari buruzko eztabaidan Italian eta auzitegiko dialogo-jokoa. Liburuak badu hirugarren atal bat ere, non kongresuari amaiera eman zion mahai-inguruaren transkripzioa eskaintzen baita. Mahai-inguru horretan eztabaidatu ziren kongresuan zehar erretorikaz, dialogoaz eta argudiatzeaz agertu ziren kontzeptu desberdinak.

Pello Huizi

4. Ira A. Noveck & Dan Sperber (arg.), *Experimental pragmatics*. London: Palgrave Macmillan, 2004, viii + 348 or.

Noveckek eta Sperberrek sortutako eremu berria da pragmatika esperimental, pragmatikan, psikolinguistikan eta arrazoitzearen psikologian oinarritua. Egileek sarrera argigarrian diotenez, metodo esperimental sofistikuak garatu ditu psikolinguistikak ahozko komunikazioa aztertzeko, baina ez ditu erabili metodo horiek teoria pragmatiko sistematikoa frogatzeko. Teoriak eta metodo esperimentalak lotzeko lan aitzindariak nahiz bide berriak aurkezten dituzte liburu honetan. Psikolinguistika esperi-

mentalak frogen sendotasuna emango lioke pragmatikari, euren arabera; eta pragmatikak, berriz, bere eskuduntzak, kontzeptuak eta teoriak psikolinguistika esperimentalari. Hiru zatitan banatuta daude sarrera horren ondoko kapituluak edo artikulua: hurbiltze aitzindariak (2-6 kapituluak), gaur egungo gaiak pragmatika esperimentalean (7-11 kapituluak) eta 'inplikatura eskalar' direlakoan kasu berezia (12-15 kapituluak). Lehenbiziko zatiko 2. kapituluak (Clark eta Bangerter) erreferentziaren gaineko ikuspegi histo-

rikoa eta gaur egungo ikuspegia biltzen ditu. Gibbsek (3. kapitulua) deskribatzen du bere esperimenduek nola mugatu dituzten teoriak, hizkuntzalaritza-pragmatikako gune diren lau alorri dago-kienez: promesak egin eta ulertzea, deskripzio mugatuak ulertzea, zeharkako hizketa-ekintzak egin eta interpretatzea eta esandakoaren eta esan nahi denaren arteko bereizketa. 4. kapituluan, metaforak aztertzen ditu Glucksbergek. Politzerrek, berriz, arrazoitze zeregin klasikoaren eta modernoaren azterketa pragmatikoa egiten du, 5. kapituluan, ondorio esperimentalak aurkeztearekin batera. Azkenik, 6. kapituluan, Sanford eta Moxeyk aztertzen dute kuantifikatzaileak ulertzea psikologikoki prozesatzea. Gaur egungo gaiei buruzkoa da bigarren zatia. 7. kapituluan, errelebantziaren teoriako printzipio nagusiak (errelebantziaren printzipioa, bereziki) frogatzen dituzten esperimenduak laburbiltzen dituzte Van der Henst eta Sperberrek. Peleg, Giora eta

Feinek aztertzen dute (8. kapituluan) noiz eta nola eragiten duen testuinguruak esaldiak interpretatzean. Coulsonek *Evoked Response Potentials* (ERP) direlakoan berri ematen du (9. kapituluan), pragmatikako hainbat kontu aztertzeko baliagarriak direla erakutsiz. Bernicot eta Lavalek (10. kapitulua) haurrek promesak ulertzea aztertzen dute, hizketa-ekintzen teorian oinarrituta. Eta, bukatzeko, 'even-if'ek sortzen dituen inferentziak dituzte aztergai Handley eta Feenyk, 11. kapituluan. Azkenik, inplikatura eskalerrei buruzkoa da hirugarren zatia osorik, elementu horiek aztertzen dituzte Bezuidenhout eta Morrisek (12. kapitulua), Chierchia eta bestek (13. kapitulua), Noveckek (14. kapitulua) eta Reboulek (15. kapitulua) artikulua banatan. Liburu interesgarria da pragmatika experimentalera gerturatu, eta orain artean egindako hainbat azterketaren berri izateko.

Larraitz Zubeldia

Zientzia kognitiboa

5. Matthew J. Traxler & Morton A. Gernsbacher, *Handbook of Psycholinguistics* (second edition). London: Elsevier, 2006, ix + 1184 or.

Handbook honen lehen edizioa 1994an atera zenetik aurrerapen eta aldaketa handiak izan dira psikologia kognitiboan oro har eta psikolinguistikan bereziki. Teoria mailan eta ikerkuntza empirikoan gertatu diren garapen nagusiak biltzea eta ikuskatzea izan da bigarren edizio honen helburuetako bat. Beste helburu bat izan da aurreko edizioan baino oreka hobea lortzea psikolinguistikan be-reizten diren arloen artean. Hiru ataletan banatua dator edizio hau. Atalen aurretik, gainera, kapitulu bat jarri da, lehen kapitulua hain zuzen ere, psikolinguistikaren ikuspegi historikoa eta etorkizu-

neko norabideak eskaintzen dituen. Lehen atala hizkuntzaren ekoizpenari eskainia dago. Lau kapitulutan honako gai hauek aztertzen dira: hitzen ekoizpena, esaldi eta perpausena, hizketaren nahasmenduak eta hizkuntzaren ekoizpena estudiatzeko fMRI teknikak erabiltzeko modua. Bigarren atala luzeena da eta hizkuntzaren ulermenaz ari da. Aurrena, hizketaren prozesaketan parte hartzen duten beheengo mailako prozesuak hartzen dira kontuan, gero banakako hitzen ulermena, ondoren esaldi eta perpausen ulermena eta, azkenik, diskurtsoaren prozesaketa eta dialogoan gertatzen den

interakzioa. Atalaren azken kapituluetan populazio berezi batzuetan ipintzen da arreta, hala nola: afasiadunak, elebidunak eta keinu-hizkuntzaren erabil-tzaileak. Azken atalean, hizkuntzaren ga-rapena berrikusten da. Hona hemen atal horretan jorratzen diren gaiak: hizkun-

tzaren garapena umetan, sintaxiaren eta semantikaren garapena lehen haur-tzaroan, irakurtzen ikastea eta hizkun-tzaren berriazko narriadura.

Pello Huizi

6. Daniel Kolak, William Hirstein, Peter Mandik & Jonathan Wasikan, *Cognitive Science: An introduction to mind and brain*. New York: Routledge, 2006, ix + 243 or.

Autoreek argi daukate zientzia kog-nitiboaz idatzi duten liburu hau eta gai horretaz beraz aritu diren horren aurre-koak desberdinak direla. Hona alde nag-u-sia, egileen arabera: beste horiek psikolo-gian, adimen artifizialean, filosofian eta abarretan garai batean ematen ziren «di-ziplinar-teko» ikastaroei begira zeuden eginak; berenak, aldiz, zientzia kog-niti-boa benetako diziplinatzat hartzen du, diziplina benetan berritza, elkarlaneko diziplina bateratutzat. Zientzia kog-niti-boak, izan ere, ba omen ditu zientzia ba-teratu edo batuak behar dituen ezauga-riak: denek onartzen dituzten oinarrizko problema batzuk eta denak ados dauden teknika batzuk problema horiei irtenbi-dea aurkitzeko. Liburuan, horrela, ez zaie inolako kapitulurik eskaintzen zientzia kog-nitiboan sartzen diren jakintzei; kapi-tuluak buru-gaitasunei eskaintzen zaiz-kie, pertzepzioari, oroimenari eta hizkun-tzari adibidez, eta kapituluaren barnean diziplina bakoitzetik datorren informa-zioa aurkezten da laburbildurik. Goga-mena funtsean irudikapen sistema bat delako ideiak gidatu du liburuaren anto-

laketa. Horrekin zerikusia duten oinarriz-ko ideia edo kontzeptuak lehenbiziko kapituluaren eztabaidatzen dira. Bigarre-nean, oinarrizko kontzeptu horiek iker-tzeko metodoak aztertzen dira. Gaine-rako kapituluak gogamenaren ahalmen nagusietan irudikapenek duten zereginaz ari dira. Hirugarrenaren gaia da per-tzepzioan kanpoko informazioa nola bihurtzen den barneko irudikapen. Iru-dikapenak oroimenean gordetzen direla eta arrazoibidean erabili eta prozesatu egiten direla: horra zertaz ari den lauga-rren kapituluak. Bosgarrenean irudikape-nek nola eragiten dieten gure ekintza eta emozioei eztabaidatzen da. Irudikapenek hizkuntzan, ulertzerakoan nahiz sor-tzerakoan, duten esku-hartze sakonaz ari da seigarren kapituluak, ahaztu gabe hizkuntzaren rola mundua irudikatze-ko bitarteko bezala. Azkenik, zazpigarren ka-pituluak arazo honi eskainia dago: ea iru-dikapenek nola egituratzen duten gure kontzientzia eta gure nortasuna.

Pello Huizi

Filosofia

7. Alain de Libera, *La philosophie médiévale*. Paris : Quadrige/PUF, 2004, xi + 547 or.

Liburu hau lehen aldiz 1993an argitaratu zuen Presses Universitaires de France argitaletxeak, filosofiako lehen zikloko ikasleei zuzendua. 2004ko edizioa Quadrige sailean azaldu zen liburuari balio orokorragoa aitortuz. Erdi Aroko filosofiaren ikuspegi zehatz eta labur samar bat nahi duenak de Liberaren lan baliotsu honetara jo dezake. Egileak ez du aro horretako filosofia mendebaleko kristautasunaren alorrera mugatu nahi eta horregatik liburuaren hamar kapituluetatik lehenbiziko laurak, hurrenez hurren, Bizantzioko filosofiari, ekialdeko Islamari, mendebaleko Islamari eta filosofia juduari eskaintzen zaizkie. Ez naiz ni gauza kapitulu horien egokitasuna juzgatzeko. Beste sei kapituluari buruz nire iritzia ezin hobea da. Bosgarren kapitulua latinez diharduen goi erdi aroari buruzkoa da, Boezioren garaiaren ondoren, Kasiodororen eta monasterioen lana azaldu eta errenazimendu karolingiarrekin bukatuz. Hurrengo kapitulua XI. mendeari buruzkoa da eta hor autore nagusia Kanterburiko Antselmo da. Liburuaren kapitulurik interesgarrienetako bat zazpigarrena da, hain zuzen XII. mendeaz azalpenak ematen dituena. Unibertsitateen aitzindari izan ziren katedral ondoko eskolen garrantzia seinaltzen da eta dialektikoen (Abelardo, Poitiersko Gilberto eta Balshamgo Adam) eta antidialektikoen (Clairvauxko Bernardo) arteko gatazka ere bai, uniber-

tsalen problemaren sorrerarekin. Zortzigarren kapitulua XIII. mendeari eskaintzen zaio. *Averroes latinus eta Aristoteles latinus* izeneko testuen sarrera eta zabalpena, unibertsitateen sorrera eta filosofia ikasketen antolakuntza, *ars vetustetik logica modernorum* izenekora egindako urratsa eta, batez ere, eskolastikaren sorrera azaltzen dira, hau da, Lauingengo Alberto (Alberto Handia) eta Aquinoko Tomas aristotelikoak alde batetik eta, bestetik, Bonaventura neoplatonikoa Avicenaren eta Dionisio pseudo-areopagitaren bidetik. Bederatzigarren kapituluak interes berezia du eta bereziki XIV. mendearen lehen zatia irieltzen dio. Duns Scoto, Eckhart Maisua, latinezko obrarekin batera alemanez egindako sermoi ugari utzi zituen, Ockham eta nominalismoa eta honen ondorengo filosofia politikoa zehatz deskribatzen dira kapitulu horretan. Azken kapituluak XV. mendeaz dihardu, albertismoaren, tomismoaren eta nominalismoaren garapena aztertuz. Liburuaren balio handietako bat bukaeran orientazio bibliografiko gisa dauden hogeita hamabi orrialdeak dira, interneteko web orri interesgarrien aipua barne. Tresna egokia baita ere paraleloki agertzen den kronologia, bai politikoa, bai filosofikoa. Bukaeran autoreen eta obra filosofiko anonimoen indize luzea dator.

Jesus M. Larrazabal

8. Paisley Livingston, *Art and Intention: A Philosophical Study*. Oxford: Oxford University Press, 2005, xiv + 251 or.

Teoria estetikoaren esparruan ekin-tzaren teoriarekin esplizituki harreman-tan dauden ikerketak urriak dira. Baina agerikoak ez badira ere, ekintzaren anali-sian agertzen zaizkigun nozioak arteaz diharduten testu klasikoetan irakurriak ditugu. Intentzioarena izango litzateke horietariko garrantzitsuena ziur aski. Ar-telanaren interpretazioan agertu zaigu gehienbat, intenzionalisten eta anti-intenzionalisten arteko liskarrean. Hong Kongeko Lingnan unibertsitatean irakas-le eta ikerlaria den Paisley Livingstonek idatzi du kontzeptu horrek artearen pro-dukzioan duen funtzioaz. Lanaren erakargarritasunen artean handiena intentzioaren kontzeptua interpretazio-tik artearen sorkuntza prozesura erama-tea dela esango nuke. Zazpi kapitulutan egituratua dago liburua. Lehendabi-zikoan, egileak erabiliko duen inten-zioaren ideia azalpena ematen du. Horretarako ekintzaren filosofiatik har-tzen ditu kontzeptuak, A. Mele, M. Brat-man edo D. Davidsonen testuetan oina-rrituz, esaterako. Bigarrenean, artearen produkzioan intentzioak jokatzeko dituen hainbat betebeharrak irudikatzen ditu; hala nola arte lanaren kausa izatea edo ekin-tza gidatzearen funtzioa. Hirugarren ka-pituluan aztergaia egile izatearena (*au-thorship*) da. Analisisan egile indibiduala eta kolektiboa desberdintzen ditu, eta ekintza kolektiboaren teorian oinarritzen da horretarako. Ondorengo kapitulan, laugarrenean, *Oeuvre* eta lan sinplearen arteko bereizketa egiten du. Lan sinplea momentu zehatz batean izate partikula-rra duen pieza izango litzateke. Eta *Oeu-vre* artista urteetan zehar sortzen doan

lan partikular horien arteko harreman eta erlazioa izango litzateke. Benetan in-teresgarria horretarako egiten duen gero-ra bideratutako intentzioen zereginaren analisia. Ildo beretik jarraituz, baina tes-tua oinarritzat duten kasuetan (literatu-ra) zentratuz, “bertsioaren” azterketa teo-rikoa egiten du. Zer harreman dauka bertsioak jatorrizko lanarekin inten-zioen ikuspegitik? Azkenengo atalerarte itxaron behar dugu interpretazioaren auzi klasikoa ukitzeko. Seigarren eta zaz-pigarren kapitulueta arte, hain zuzen. Aurretik landutako argudio eta ideiez ba-liatuz, azaltzen du intentzioak kontuan izatea zenbateraino den beharrezkoa edozein arte lan modu aproposalan interpretatzeko. Hasieran aipaturiko lis-kar horren barnean izan ohi diren ikus-puntuak kontuan izanda, ez da muturre-koa berea, nahiko moderatua baizik. *Partial or moderate intentionalist* deitzen dio bere buruari. Fikziozko Inten-tzionalismoa (*Fictional Intentionalism*) eta Intenzionalismo Hipotetikoa (*Hypotheti-cal Intentionalism*) jarreraren aurka, onar-tzen du intentzioak guztiz beharrezkoak direla lanaren “irakurketan”, baina inten-zio horiek huts egin dezaketela. Aldi be-rean, ohartarazten digu asmorik gabeko elementu derrigorrezkoak ager daitezke-ela interpretazioan eta, horregatik, onar-tu behar dugula intentzioetan bakarrik ez datzala interpretearen zeregina. Laburbil-duz, ekintzaren teoriatik artearen pro-dukzioa aztertu nahi duen edozeinen-tzako liburu guztiz derrigorrezkoa.

Aitor Izagirre

9. Noël Carroll, *On Criticism*. New York: Routledge, 2009, viii + 210 or.

Arte kritikariaren zeregina zein den aztertzea da liburu txiki honen xedea, kritika mota hori sortzen duenak beste eragileekin (artistak, ikus-entzuleak, etab.) dituen harremanak aztertzea. Inoiz baino arte produkzio gehiago dagoen momentu honetan egin beharreko lanaren garrantziaz ohartarazten digu sarrean. Hainbeste artelanen aurrean kritikariak funtsezkoa den lana egiten duela pentsatzen du Carrollek. Eta artista asko dagoen hein berean, kritikari asko dago. Arteak filosofoen arreta handia bereganatu izan du, baina ez hainbeste kritikaren jarduerarena. Biak gauza beraren parte ezberdinak diren ustean, egileak arte kritikaren jardueraren berreraiketa arrazionala egin nahi du, hots, arte kritikaren filosofia. Hori ez dugu nahastu behar kritikaren soziologiarekin eta deskriptiboak diren hainbeste ikerketarekin. Edozein arte kritika jardueraren erroetara doan bidaia filosofikoa proposatzen digu berak. Zirkulazioaren dauden teoria gehienak interpretazioaren teoriak direla uste du, baina ikuspegi desberdina da berea. Carrolleken tesi nagusia da *ebaluaketa* dela kri-

tikaren zereginik garrantzitsuenena. Baina ez edonolako ebaluaketa, baizik eta arrazoiaren oinarrituriko ebaluaketa. Horren azalpenaz dihardu liburuaren lehenengo zatia. Kritikariak gauza asko egiten ditu: deskripzioak, testuingurua azaldu, analisi eta sailkapenak egin, interpretatu, etab. Baina ebaluaketa artistikoaren (kategoria artistikoen argipean ikusitako ebaluaketa) mende egongo lirerateke, bere ustez, zeregin horiek guztiak. Bigarrean kritikaren objektua zein den galdetzen dio bere buruari, eta aztertu egiten du. Bere iritziz, artistak lanaren bidez lortzen duena izango litzateke kritikaren objektu hori. Hirugarren kapituluan ebaluaketa ez diren aipatutako zeregin horiek aztertzen ditu banan-banan, eta azkenengo zatian, laugarrenean, kritikoki eraikitako ebaluaketa mota hori aztertzen du arretaz. Liburu zorrotza eta ederki egituratutakoa, Carrollek ohituta gauzkan moduan, inolako itzulbirarik hartzen ez duena eta gakora zuzenean doana.

Aitor Izagirre

Logika

10. José Ferreirós, *Labyrinth of Thought. A History of Set Theory and its Role in Modern Mathematics. Second edition revisited*. Basel: Birkhäuser, 2007, xxv + 466 or.

Multzoen teoriari buruzko testu historiko asko eman dira argitara hogeigarren mendean. Gehienek Cantorren lana eta ondorengo multzoen teoria axiomatikoa hartu dituzte ardatz. Ferreirósen liburu honetan (gaztelaniazko 'El nacimiento de la teoría de conjuntos' izeneko doktore tesian oinarritua) beste nonbait jartzen da indarra. Lehen edizioa 1999koa

da eta bigarrean hitzaurrean eta epilogoan azaltzen dira aldaketak. Liburuak hiru zati ditu. Lehenbizikoaren bost kapitulutan defenditzen du egileak bere tesi nagusia, hau da Cantor gutxietsi gabe eta analisiaren garapenean hemeretzigarren mendean infinituari buruzko lanetan egindakoa saihestu gabe, bai Göttingeneko eskolan bai Berlingo eskolan, aritme-

tikan, algebran eta topologiaren hastape-netan egindako lanen garrantzia defenditzen du autoreak, batez ere Riemann, Dirichlet eta bereziki Dedekind aipatuz. Bigarren zatiko hiru kapituluak estandarragoak eta ezagunagoak dira. Hor bai, transfinituen alorrean Cantorrek egindako lan handia eta sortzailea aztertzen da eta kapitulu bat eskaintzen zaio Dedekindek infinituari buruz egindako lanari, hain zuzen Aritmetikaren Oinarrien Programaren barruan. Hirugarren zatiak hiru kapitulu ditu, axiomatikaren inguruan. Lehenik, Zermeloren ekarpenak deskribatzen dira eta hautuaren axiomak sortutako eztabaida azaltzen da; ondoren Russellen tipoen teoriaren berri ematen da. Hurrengo kapituluan tipoen teoriaren garapena erakutsi eta axiomatikarako lehen mailako logika klasikoaren garrantzia seinalatzen da. Azkenengo ka-

pituluan ZF (Zermelo-Fraenkel) eta BNG (Bernays-von Neumann-Gödel) axiomatikak aurkeztu eta Gödelen emaitzak ematen dira hautuaren axioma eta kontinuoaren hipotesi orokortuaren konsistentzia erlatiboari buruz. Cohenen independentzia emaitzak bizpahiru lerrotan aipatzen dira, baina ez da adierazten nola lortzen diren fortzamentuaren bidez (Gödelen iritzian multzoen teoria axiomatikoan izan den emaitzarik garrantzitsuena). Bestalde, Hausdorffen *Grundzüge der Mengenlehre* lan oso garrantzitsuari ez zaio lekurik ematen. Liburua, edonola ere, oso ondo egina dago, erreferentzia bibliografiko ugari ditu eta baita izenen indizea eta gaien indizea ere. Lasai irakurtzea eskatzen duen liburua.

Jesus M. Larrazabal